

VILLANCICOS EUSKAROS.

**GAMBRACO GAZTEAK (*)**

1831-garren urteco eguberri besperan.



ARZAIGOKIA.

Gure Jesús maitea
gaur dator mundura,
Beraren izenean
gu ate ondora:
urtero beon galde
eche barrengoac,
eman dizayotela
gau on Jaungoicoac.

EUSKARICHOA.

Salbe, adiskideac,
jende onac abur,
eche onetan Jesus
arki dedilla gaur:
echecoac adiyo
Pascua jai ona,
bake, amoriyua
eta osasuna.

ZORTZIKOA.

Ez dago gaur negarric,
pena, naigaberic,
samiñic ez dago gaur
eta doloreric:
guztia da contentu,
doai atsegiña,
biotz barrengo poza
geyago eziña.

Aingerubac, arzayac,
zerutar ta gizon
guztiac nai dute gaur
zelebratu gabon:
nor nai da soñulari,
coplari edozeiñ,
iñorc iñon ez daki
gaur nor ote dan zeñ.

JOSÉ VICENTE ECHEGARAY.

(*) *Gambraco gazteak* son indudablemente jóvenes pertenecientes á la música local de los *Gambaros*, que existía por aquella fecha en San Sebastian, y que tomó su nombre de la palabra euskara *ganbara*, por ser un *desban* el punto de sus reuniones.